



San Antue kalia orain dala hirurogei bat urte

Oñatiko beste kale batzuk XX. mendeko bigarren erdialdian sakon aldatu baziran be, **San Antue** kaliak ez zittuan mudantza makalaguak izan. Argazki honek erakusten dosku orain dala hirurogei bat urte kale horrek eukan itxuria. Oraintxe letxe, etxerik gehixenak fotografixiaren eskumaldetik eukain behebarrua. Ezkerretik Gaiñenera eta Sindikatu moduan ezaguketan zan etxera bakarrik sartzen zan eta alde horretako gaiñontzeko bizitzak Kale Zaharretik eukain eta dakoi ate nagusixa zein numerua, nahiz eta gehixenak etxeostetik be beste sarreraren bat izan. Eskumaldekotara, berriz, kale honetatik sartzen zan.

Fotografixa honetan eskumakaldiori ikusi geinke batez be. Hasteko, egixa esan, **Zarateko** etxe-kantala eta losia agiri xaku, orduko Lili plazatuaren eta San Antue kaliaren artian egitten dauen ertz horretan. Gero **Aitzeko** dendarako zabaldu zan atia bentania da hemen. Plazuelia pasauta, kaliaz bestaldetik agerketan dan lehenengo etxia **Txaiñena** zan, **Larrastegi** izenekua Zaratekuak tapaitten dauelako. Kale-baserrixa zan Txaiñena eta Intzatarrak bizi ziran bertan. **Kantuetxua** etorren ondoren: etxe horrein atzekaldian egozen ortu, ollategi edo banastagiñen pozueta fateko pasadizo estua eta orduko neskatilla-mutikuen jolasleku estimaua.

Etxe-illara luziari hasieria emuten otsan **Loberanian** Gallastegi-Zurutzatarrak bizi ziran. Honi erantsita, **Roke banastagiñarena** eguen, Bikufatarrena. Hurrenguari **Frantzesiarena** esaten xakon, hango etxkoandria, Juliana Arriaran, gaztetan Frantzian lanian ibilli zalako; Igartuatarrak ziran honeik. **Kukarruena** Balentin Arkauz zanaren alargunak eta seme-alabak nahiz Anduagatarrak eukain bizilekutat. San Antue kaleko **Etxe Haundixa** etorren gero; pisu askokua zanez, famelixa ugari bizi ziran han: Estebanenak (Igartuatarrak, Axun, Lukas, Markel etab.), Eduardo Abarrategi eta Klaudio Olalde, **Sillero**, bestiak beste. Eta eskumaldeko azkenengo etxia, berriz, **Abaliarena** eukan izen moduan eta abizen horretako famelixa ez ezik, Agustin Uranga eta beste batzuk be bizi izan ziran bertan; orduan etzan hain haundixa, baiña laister Lamiategiko Domingok erosi eta Errasti-Murgiondotarrak etorri ziranian, zihero barriztau eta bi pisu gehittu otsain.

Ezkerretara Ugartetarren **Gaiñena** ikusi geinke, oraintxe dakon bi atiekin, baiña artian kale-baserri zala. **Sindikatu** ezta agiri, baiña somaiten da, astua dago-eta hormara lotuta; baserritarrak etorten ziran denda-almazen horretara, pentsua, zahixa eta antzekuak erostera; goixan bizi ziran Juane Arregi eta Trini Mendizabalek eukain negoziuaren arduria; etxe horretako beste pisu bat Madinatarran bizilekua zan. Baserri-girua, bestalde, garbi erakusten dosku Txaiñaneko aurrian dague burdixak. Kaliaren zabaluna horretan garixa joten euen 1960ko hamarkadara arte hainbat etxetakuak. Baiña auzoko ofiziorik zabalduena **banastagintzaia** izango zan: Larrastegi, Txaiña, Lobera, Frantzesianian eta beste etxepe batzuetan egitten ziran gaztaiña-zimitzez lanak. Konturatuko ziñain Larrastegitik Kukarrueneko artian egozen lau etxiok bota egin zirala, gaur egun **Aitzalde** alkartiaren gaiñeko pisu-illaria jasoteko.

J. E.

Fotografixiak hirurogei urte pasatxo eukiko dittuala uste dogu. Gerardo López de Gereñuk atara eben eta Arantzazuko argazki-fonduan gordeten da. Argibide asko Pilar Barrenari zor xaugu. Eskerrik asko!